

Debabarrena-Urola Erdia

AZPEITIA > Loiolaraino heltzen den espaloia zati bat itxi dute oinezkoentzat

Hotel Loiolaren ondoko espaloia zati bat (Esklaba aurretik Loiolara) oinezkoentzat itxita egongo da datozen bi hilabeteotan, beti ere, Etxebeltz-Izarra eremuko errotonda berriaren lanak egiteko. Hori dela eta, oinezkoek bi aukera izango dituzte Loiolara joateko: bide zaharretik edo Esklaba aurrean bidea gurutzatu eta Jesus eta Maria eliza aldeko espaloitik. Hala ere, Hotel Loiolara joan behar dutenez sarrera edo pasagunea utzi dute. >J.L.

Azpeitiarrek ezin izango dute Justizia Jauregiaren aurreko aparkalekua erabili

Azpeitiko Justizia Jauregiaren aurrean aparkatzeko plazarik lortzeko lanak berehala hasiko dira. Horregatik, obra irauten duen bitartean herritarrek ezin izango dituzte aparkalekuan dauden 17 plazarik erabili (Urbite eta plaza barrukoak). Galera hori orekatzeko, 18 plaza berri sortuko dituzte Eroski aurrean eta Errotaundi okindegitik Justizia Jauregira bitartean. >J.L.

Urola Ikastolak zozkatu duen mendi bizikleta 4.903 zerbakiarentzat izan da

Urola Ikastolak DBHko 2. mailako ikasleen bidaiarako dirua lortzeko asmoarekin zozkatu duen mendiko bizikleta 4.903 zerbakiarentzat izan da. Zerbaki irabazlea duenak otsailaren 12ra arte du bere saria jasotzeko aukera. >J.L.

Azpeitiko Iraurgik Haitira bidaltzeko diru-bilketa kanpaina abiatu du

Azpeitiko Iraurgi ikastetxeak Haitira bidaltzeko dirua batzeko kanpaina abiatu du, Jesusen Alaben Fundazio Ayuda Solidaria Gobernu Kanpoko Erakundearekin batera. Lagundu nahi dutenek Banco Popularreko 0075 0124 11 0701424270 edo Can-eko 2054 0084 01 9147974607 kontu zerbakietan egin ditzakete aportazioak. Lortutako dirua Errepublikan Dominikarrean bizi diren Jesusen Alabek bideratuko dute. >J.L.

ERREZIL > Urola ikastolak DBHko programa azalduko du gaur Herri Eskolan

Urola ikastolak datorren ikasturterako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako heziketa programaren nondik-norakoak azalduko ditu gaur Errezilgo gurasoen aurrean. Bilera hori 15.00etan hasiko da Errezilgo Herri Eskolan. Bestalde, Urola Ikastolak jakinarazten du 2010-2011 ikasturterako matrikula epea otsailaren 12ra arte irekita egongo dela. >J.L.

ELGOIBAR > El Ayuntamiento adjudica el proyecto básico para El Pilar a ZMZ asociados

La comisión de gobierno del Ayuntamiento de Elgoibar ha adjudicado a la empresa ZMZ asociados, de manera provisional y por un importe de 172.782 euros (IVA incluido), el contrato encaminado a elaborar el proyecto básico para la construcción de una residencia para las personas mayores, un centro de día, aparcamientos y otras dependencias municipales en el edificio que ocupa el colegio de El Pilar. >J.L.

Centros de Alemania, Francia y Euskadi partirán en Elgoibar sobre Innovación Pedagógica

LA JORNADA SE LLEVARÁ A CABO MAÑANA EN EL IMH Y LA ASISTENCIA ES GRATUITA

El nuevo Instituto de carrozado y carenado Meka acogió ayer una ponencia sobre vehículos eléctricos y una exposición

JABI LEON

ELGOIBAR. El Instituto de la Máquina-Herramienta (IMH) de Elgoibar acogerá mañana, a partir de las 11.00 horas, una jornada sobre Innovación Pedagógica.

La iniciativa, que se pondrá en marcha con una breve intervención del Viceconsejero de Formación Profesional del Gobierno Vasco, David Urzainqui, ofrecerá a los asistentes la posibilidad de conocer las experiencias novedosas impulsadas desde diversos centros educativos

con reconocido prestigio en el ámbito de la Formación Profesional.

Concretamente, la cita de mañana contará con la participación de representantes del centro alemán DHBV Duale Hochschule Baden-Württemberg Mannheim, del francés LE CFAI Adour Centre de Formation d'Apprentis de l'Industrie, del IMH de Elgoibar (Ingeniería en alternancia), del Instituto de FP de Usturbi y de los centros formativos Mendizabala (Gasteiz) y San Jorge (Santurtzi).

La asistencia a la jornada es gratuita pero las personas interesadas en acudir deben apuntarse por adelantado llamando al número de teléfono 943 744132 o a través de la web www.imh.es.

VEHÍCULOS ELÉCTRICOS EN MEKA Las instalaciones que el nuevo Instituto de carrozado y carenado Meka de Elgoibar tiene en el polígono Albitxuri albergaron en la tarde de ayer una ponencia sobre vehículos eléctricos a cargo de Joan Grau, gerente de la empresa catalana Grau maquinaria i Server Integral.

El acto, organizado con la ayuda de la empresa algoibarra Arrizabal Elkarte, sirvió para "acercar a las empresas del entorno experiencias prácticas y referencias del mundo del automóvil y, concretamente, de los coches eléctricos".



Vehículos eléctricos expuestos durante la jornada de ayer en el instituto Meka de Elgoibar. FOTO: J.L.

Azkoitiko Udalak ikerketa toponimikoa osatzeko herritarren laguntza eskatu du

AZKOITIA. Azkoitiko Udalak eta Euskaltzaindiak herriko toponimia ikertzeko 2006. urtean bultzatutako proiektua amaitzear dago. Hala ere, Udalak herritarren laguntza eskatu du "lokalizatu gabeko leku izenak herriko mapan kokatzeko".

AZKOITIA. Azkoitiko Udalak eta Euskaltzaindiak herriko toponimia ikertzeko 2006. urtean bultzatutako proiektua amaitzear dago. Hala ere, Udalak herritarren laguntza eskatu du "lokalizatu gabeko leku izenak herriko mapan kokatzeko".

Azken batean, udal agintarien ustetan, "azkoitiarrok gara inor baino hobeto herria eta bere inguru ezagutzen dugunok".

Edonola ere, abian jarritako prozesua borobiltzeko, Udaleko Euskara sailak toponimia lanari buruzko azalpenak jasotzen dituen *Azkoitiko leku izenak* liburuxka banatu du herriko etxeetan.

Argitalpen horretan, orain arte egindakoa azaltzeaz gain, herritarren proposamenak jasotzeko orria agertzen da.

Horrela bada, azkoitiarrek otsailaren 1era arte dute toponimia lana osatzeko euren ekarpenak eta zuzenketak aurkezteko aukera, herritarrentzako harrera bulegoan edo euskara@azkoitia.net helbide elektronikoa bitartez, hain zuzen ere.

Ekarpen guztiak jaso eta aztertu ondoren, Udalbatzarrak herriko mendi, erreka, kale, plaza, auzo, iturri eta bestelako lekuen izenak jasotzen dituen toponimia lana onartuko du. >J.L.

EIBAR EJECUTARÁ CINCO PROYECTOS CON LAS NUEVAS AYUDAS ESTATALES

Casi la mitad del dinero será para instalar escaleras mecánicas en jardines

EIBAR. El Ayuntamiento de Eibar pretende acometer a lo largo de este año cinco proyectos con los tres millones de euros que recibirá del fondo estatal para el Empleo y Sostenibilidad Local.

Las actuaciones planteadas consistirán en la instalación de placas solares en el campo de fútbol de Ipurua (tiene un presupuesto de 490.000 euros), en la renovación del sistema de calefacción y aireación en el frontón Astelena (336.000 euros) y en la mejora de los sistemas para que los ciudadanos puedan acceder a los trámites municipales a través de Internet. Esa última actuación costará unos 120.000 euros e incluirá la renovación de la web del Ayuntamiento.

Asimismo, el Consistorio destinará 1.360.000 euros de las nuevas ayudas estatales para instalar escaleras mecánicas en jardines y otros 665.000 euros para habilitar un ascensor comunitario que permita unir el parque de la calle Carmen con Iparraguirre (665.000 euros).

Todos los proyectos empezarán a ejecutarse en los próximos meses; toda vez que el Consistorio prevé licitar en febrero las distintas obras. >J.L.

LAN ARLOA EUSKALDUNTZEKO PROZESUA ABIATU DU AZKOITIAK

Enpresetarako planak azaltzeko jardunaldia izango da bihar Intsausti jauregian

AZKOITIA. Azkoitiko Udalak Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibarekin kontratua sinatu berri du, beti ere, euskararen erabilera lan munduan bultzatzeko helburuarekin.

Hori dela eta, herriko enpresetan garatzeko euskara planen ezaugarriak azaltzeko jardunaldia izango da bihar (12.00etatik 13.00era arte), Intsausti Jauregian.

Jardunaldi hori hiru zatitan banatuko da. Hasteko, Asier Aranbarri alkateak ongietorria emango die parte-hartzaileei eta horren ondoren Emun kooperatibako teknikaria den Lorea Izagirrek euskara planen nondik norakoak azalduko ditu. Azkenik, Jesus Mari Astigarraga, Danobat Kooperatibako presidentek, berak zuzentzen duen enpresako esperientziaren berri emango du; galderak eta eskaerak egiteko izango den tarte ireki aurretik.

Jardunaldia gaiaren inguruan interesa duen edonori zuzenduta dago eta norbaitek informazio gehiago behar izanez gero Udaleko Euskara zerbitzura (943 857170 telefonoa) edo Emunera (692 730246) deizake. >J.L.